

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala**

Hutsen zuzenketa, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako Bakioko udaltzaingoaren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoena.

Alkatetzak 358/2023 Dekretua eman du 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako Bakioko udaltzaingoa lanpostu baterako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren oinarri espezifikoak zuzentzeko. Honela dio xedapen-zatiak:

Lehenengoa

Udaltzaingoaren oinarri espezifikoaren aldaketa onartzea, esperientzia orokorrari buruzko A.1 ataleko merezimenduen baremoan egindako akatsa zuzentzeko:

— *Lehen esaten zuen lekuan:*

«A.1. Esperientzia orokorra:

(...)

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

Administrazio Bereziko Eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalako (C1 azpieskalakoa) Polizia motako agentearen kategorian edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioa barne, egindako zerbitzuengatik, 0,01086 puntu lan egindako egun bakoitzeko, 10 urteko gehieneko mugarekin.»

— *Orain dio:*

«A.1. Esperientzia orokorra:

(...)

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

Administrazio Bereziko Eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalako (C1 azpieskalakoa) Polizia motako agentearen kategorian edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioa barne, 0,01644 puntu lan egindako egun bakoitzeko, 10 urteko gehieneko mugarekin.»

Bigarrena

Oinarri horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren egoitza elektronikoan edo web orrian argitaratzea xedatzea.

Aurkaratzeko Bideak: Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 52.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa ipini ahal izango da administrazio bideari behin betiko amaiera ematen dion egintza honen kontra (29/1998 Legearen 25.1. artikulua eta 39/2015 Legearen 123.1. artikulua) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Bilboko Auzitegian; hori egiteko epea hilabete bikoa izango da (29/1998 Legearen 46.1. artikulua), jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Dena dela, aitatutako errekurtsu judizialari ekin orduko, Berraztertze Errekurtsoa ipini ahalko zaio egintza ebatzi duen organoari berari (39/2015 Legearen 123.1. artikulua) hilabete epean (39/2015 Legearen 124.1. artikulua), jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik ipini, harik eta berraztertze errekurtsu ebatzi edo haren presuntziozko ezespena izan arte (39/2015 Legearen 123.2. artikulua); ezespen hori halaxe gertatzen da hilabete igarotzen denean ebazpena jakinarazi gabe (39/2015 Legearen 124.2. artikulua).

Dena dela, hori guztiori ez da eragozpena izango bidezko beste edozein helegite edo aurkaratze bidea aurkezteko.

Bakion, 2023ko abuztuaren 24an. — Alkatea, Amets Jauregizar Baraizarra